



GIPUZKOAKO ESKULANGINTZAREN ERREGISTRO OROKORRA

Hirugarren atala: Eskulangintza Elkarteak

Urtea: 2024 | Ekonomia Sustapena

HIRUGARREN ATALEAN INSKRIBATZEKO BALDINTZAK:

- a.– Beren estatutuen helburu nagusia eskulangintza sustatzea eta defendatzea duten legez eraturako erakunde juridikoak.
- b.– Helbide fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan izatea.
- c.– Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion eskulangintza epigrafean alta emanda egotea.
- d.– Gutxienez hiru kidek osatuta egotea, eta Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorrean izena eman eta bi urtera gutxienez bost kide izatea.

ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA:

Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorrean sartu nahi duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzte harremanak.

Izapide desberdinak aurkezteko eta egiteko, elkarte interesdunek, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako identifikazio sistemak eta sinadura elektronikoa erabili ahal izango dituzte. [Egoitza elektronikoa](#) dago horien zerranda.

Inskribatzeko eskaera inprimaki normalizatuen arabera egingo da. Inprimaki horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean eskuratu eta bete ahal izango dira:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>

ESKULANGINTZA ELKARTEEN KASUAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. Horretarako prestatutako formularioak, behar bezala beteta.
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion artisau epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, zerga horren ordainketaren azken ordainagiria aurkeztuta, hala dagokionean.
3. Elkarteko Idazkaritzak edo organo eskudunak emandako ziurtagiria, elkartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko eskulangileen eta eskulangintza enpresen kopurua egiaztatzen duena.
4. Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.
5. Eraketa-akta.
6. Elkartearen estatutuak.



BETE BEHAR DIREN EPEAK:

Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 24a.

Eskabideen amaiera–epea: 2024ko maiatzaren 23an, 13:00etan.

ARAUDI APLIKAGARRIA:

[4/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, Gipuzkoako Eskulangintza eta Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorra arautzen dituena.](#)

[2024ko deialdia, Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokor berria inskribatzeko.](#)

ESKAERA EGITEKO URRATSAK:

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>
- Artisautza Erregistroko izapideak kudeatzeko aplikazioa → [Erregistro elektronikoa](#)

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU:

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa Teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943-112218

Emaila: sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus